



COVID-19a dela eta Zestoako Gaztelekuaren jarduera

Dokumentu honek Zestoako Udalak 2020-2021 ikasturtean Zestoako Gaztelekuaren jarduera garatzeko hartuko dituen neurriak jasotzen ditu. Dokumentuaren hartzaileak ekintza horietako parte-hartzaileak eta beren legezko tutoreak dira.

Gaztelekuaren jarduera COVID-19ra egokitzeko plana

1. Kutsapenaren kontrola eta prebentzioa

- Parte-hartzaileek eta beren legezko tutoreek beren gain hartuko dute COVID-19aren aurrean duten egoeraren erantzukizuna; hala, gaztelekuaren jardueran parte hartu duen haietakoren batek COVID-19arekin lotutako sintomak baditu, ez da gaztelekura joango eta arduradunarekin harremanetan jarriko da, gazteria dinamizatzailearekin alegia, 688 684 029 telefono-zenbakira deituz edo gazteria@zestoa.eus helbide elektronikora idatziz.

- Zestoako Udala arduratuko da gaztelekuko segurtasunaz. Ekipamenduaren sarreran osasun-adierazpena jarriko da eta agindutako segurtasun-protokolo eta neurri guztiak beteko dira, besteak beste:

1. Parte-hartzaile bakoitzaren erantzukizunpeko adierazpena izatea, arrisku-talde batekoa ez dela eta bere bizikideen artean arrisku-talde bateko inor ez dagoela ziurtatuz.
2. Parte-hartzaile bakoitzaren konpromisoa izatea COVID-19rekin lotutako sintomatologia badu ez duela gaztelekuko jardueran parte hartuko eta gazteria dinamizatzailearekin harremanetan jarriko dela informatzeko.
3. Parte-hartzaile bakoitzaren egiaztagiria izatea, derrigorrezko higie eta prebentzio-neurri pertsonalen dokumentua onartuz.
4. Parte-hartzaile bakoitzak sinatutako baimen informatua izatea.
5. Egoera sanitarioengatik, pertsonalengatik edo sozioekonomikoengatik arriskuan dauden pertsonak parte hartzeko bete behar diren baldintzei buruzko informazioa emana izatea.

- Jarduera egiten den ekipamenduan, kartelak eta informazio-orriak egongo dira, segurtasun-portaera eta distantzia egokiak, higie-neurriak, etab. gogorarazteko.
- Jardueraren hasieran, higienari eta portaerari buruzko prebentzio-neurriak gogorarazteko saioak egingo dira, adin bakoitzera egokituta.
- Erabiltzaileei gorputz-tenperatura hartuko zaie jarduera hasi aurretik. Ezingo dute jardueran parte hartu sukarra dutenek (>37°C).

2. Derrigorrezko higie- eta prebentzio-neurri pertsonalak betetzea

- Eskuak sarri garbituko dira, horretarako erabiltzaileen eskura ura, xaboia eta eskuak lehertzeko papera edota gel hidroalkoholikoak egongo dira.



- Musukoa nahitaez erabili beharko da. Erabiltzaile bakoitzak bere musukoa eraman beharko badu ere, gaztelekuan erreserbako musukoak egongo dira, norberarena galdu, hautsi edo antzeko zerbait gertatuz gero ordeztu ahal izateko.
- Jardueran zehar pertsonen artean 1,5 metroko distantzia gordeko da ahal den heinean.

3. Jardueretarako izen-ematea

- Gaztelekuko jardueretarako izen-emate orokorra on-line egingo da, www.zestoagazte.zestoa.eus webgunearen bitartez, eta aparteko kasuetan telefono bidez. Beharrezkoa den dokumentazioa webgune horretara igoko da, posta elektronikoz bidaliko da edo, salbuespen gisa, zuzenean gaztelekuan banatuko da.
- Gaztelekuan egun bakoitzean antolatuko diren jarduera konkretuetarako izen-ematea whatsapp bidez jasoko da, 688 684 029 telefono zenbakian.

4. Aurrez aurreko jarduerak egokitzea

- Gaztelekuko ordutegia txandatan banatuko da:

3.zikloa	Ostegunak	16:45-17:45		18:00-19:00
DBH	Ostiral eta larunbatak	16:00-17:00	17:15-18:15	18:30-19:30

- Txanda bakoitzean 14 parte-hartzaileko taldea egon ahal da, bertako arduradunarekin.
- Jarduerak egiteko orduan, pertsonen arteko 1,5 metroko segurtasun-distantzia errespetatzea ahalbidetzen duten ekintzak lehenetsiko dira.
- Aire zabaleko jarduerak maiztasun handiagoz egingo dira.
- Jardueraren ardura duen erakundea udalerriko beste agente baliokide batzuekin koordinatuko da, pilaketak saihesteko.
- Gazteria dinamizatzaileak prestakuntza espezifiko eta eguneratua jaso du COVID-19ari buruz, ezartzen ari diren neurri eta protokolo espezifikoari buruz eta laneko arriskuen prebentzioari buruz, dagokion osasun-agintaritzak ezarritakoarekin bat etorritik.

5. Jarduera garatzeko baldintzak

- Txandakako sistema ezarriko da. Txanda batetik besterako tartean espazioa desinfektatu eta aireztatu egingo da.
- Espazioan ibilbidea markatuko da, joan etorriak antolatuz.
- Lokalaren garbiketa eta desinfekzioa areagotuko da.
- Komun bakarra erabiliko da txanda bakoitzean.
- Txanda batetik besterako tartean, jardueretan erabiliko den materiala aldatu egingo da.
- Lokalaren barruan ezingo da jan edota edan.



Kutsatzeko arriskua edo kutsatze positiboa dagoenerako prebentzioko eta jarduteko protokoloa

- Erabiltzaileek ezingo dute gaztelekuko jardueran parte hartu ondorengo egoeraren batean aurkitzen badira:
 - COVID-19arekin lotutako sintomak baditu (sukarra, eztula, giharretako mina, beherakoa, bularraldeko mina...).
 - COVID-19aren diagnostikoa jaso ondoren isolatuta badago.
 - COVID-19aren diagnostikoa jaso duen batekin harreman estua izateagatik etxeko berrogeialdian badago.
 - COVID-19arekin lotutako sintomak dituen batekin harreman estua izateagatik etxeko berrogeialdian badago.
- Gaztelekua garbitzeko eta desinfektatzeko lanak ugaritu egingo dira, laneko higiearen eta osasunaren alorreko agintari eskudunek emandako gomendioak betez.
- Gaztelekuan higienarako eta prebentziorako neurrien seinaleak jarriko dira, haien berri izan dezaten pertsona guztiek.
- Erabiltzailearen batek sintomak agertuz gero taldetik isolatuko da eta haren guraso edo tutoreei deituko zaie haren bila etor daitezen.
- Erabiltzaile bati COVID-19aren sintomatologia antzemanaz gero, gaztelekuko arduraduna erabiltzailearen gurasoarekin jarriko da harremanetan, horiek seme-alaba Osakidetzako zerbitzuetara jo dezaten eta haien ezarritako protokoloak aplikatu ditzaten.
- Erabiltzaile bati COVID-19a diagnostikatuz gero, Osakidetzako zerbitzuek ezarritako jarraibideak aplikatuko ditu Gaztelekuak.